

## ARGAZKI BILDUMA

Karlismoaren Museoaren bilduman 762 argazki daude, 38 dohaintzatatik eta 2 gordailu partikularretatik ekarriak.

Azpimarratzekoak dira fondo hauek:

### Alfonso Carlos ospitalearen bilduma



Iruñeko Alfonso Carlos ospitalea Gerra Karlistaren Nafarroako Batzorde Nagusiak sortu zuen, Espainiako Gerra Zibilean kanpaina-ospitale moduan erabiltzeko (1936-1939). Egoitza Iruñeko San Miguel apaizgaitegian izan zuen.

Bilduman 55 argazki daude, erakundearen eguneroko jarduna erakusten dutenak. Egileak, hauek:

- Nicolás Ardanaz
- Francisco Zubietta

### Beatriz de Lasuen bilduma. Errege familia karlista



2011n, Beatriz de Lasuen y Huth, Lausengo eta Rad de Vareako kondesak, bere familiaren argazki bilduma eman zion Karlismoaren Museoari.

52 argazki dira, bere aita Jaime de Lasuenenak zirenak; bere familiak errege familia karlistarekin zuen harreman pertsonala ederki erakusten dute.

### Jesús Martín Alías gordailua



Jesús Martín Alías bildumagile atalaren gordailu partikularra 2017an iritsi zen Karlismoaren Museora.

Karlismoaren historiako materialez osatuta dago, eta aldi, esparru eta formatu bat baino gehiagokoak dira. Banakako 122 argazki eta familia album bat dira, azken hau azpimarratzekoa, Juana Flórezena izan baitzen. Flórez etxeko kondearen alaba zen Juana, Margarita de Borbón Parmakoaren ohorezko dama.